



Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Alde batetik, GORKA ARTOLA ALBERDI jauna, Bergarako Udaleko alkatea, Udala ordezkatzuz, eta Xabier Juaristi Arrieta jaunaren laguntzarekin, ekintza hau gauzatuko duena.

Bestalde, Euxebio Antonio Alves Bernardo jauna, adinez nagusia (NAN: 60179956-L), "ASOCIACION FERIANTES AUTONOMOS DE EUSKADI" elkartearen izenean eta ordezkartzan (IFZ: G20153011), jakinarazpenetarako helbide hau duena: Gazteluondo kalea, 5, 2. solairua - 10, Recalde, 48002 Bilbao, Bizkaia (bilbao@afadeeuskadi.com).

Bi alderdiek **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako hauetan oinarrituta:

### AURREKARIAK

"ASOCIACIÓN FERIANTES AUTONOMOS DE EUSKADI" elkarte (IFZ: G20153011) – aurrerantzean, AFAD E–, Bergarako Udalari eskatu dio, aurreko urteetan bezala, baimena eman dezala 2026ko Mendekoste Pazko jaietan feriak, atrakzioak eta postuak jarriz lurzoru publikoa okupatzeko.

Toki-erakundeen ondasunak arautzen dituen araudiak eskatzen du jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimenak lehia-araubidez ematea, hau da, deialdi publiko bidez, kasu honetan bezala espazio mugatua denean.

Nolanahi ere, Udalak uste du ez dela beharrezkoa deialdi publikorik egitea hitzarmen honen xede den espazioari dagokionez, errealitateak erakutsi baitu Udalak sustatutako deialdietan AFAD Eek soilik parte hartu duela eta baimena eskatu eta lor dezaketen profesional gehienak elkarte horretakoak direla edo haien bitartekaritza eskatzen dutela.

Hala ere, bai araudi horrek, bai jarduera ekonomikoetan lehia askea bermatzen duenak, eragotzi egiten dute AFAD Eren kide izateagatik edo ez izateagatik lagatako espazioaren erabilera murriztea. Horregatik, hitzarmenak berriaz bermatzen du elkartekide ez diren profesionalek erakarpen edo etxola bat jartzeko duten eskubidea, baina AFAD Era jo beharko dute eskaera kudea dezan.

Feria horiek adierazitako egunetan eta lurzoruan jartzeko eta kudeatzeko urteko baldintzak koordinatzeko eta adosteko, alderdiek dokumentu hau sinatu dute, honako klausula hauetan oinarrituta:

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA:** Hitzarmen honen xedea da lurzoru publikoa okupatzeko baldintzak adostea eta arautzea, feriako atrakzioak jartzeko Bergarako hilerriaren ondoan dagoen aparkaleku publikoan, Matxiategi kalean. 2026ko jaiak maiatzaren 22an (ostirala) hasi eta maiatzaren 26an (asteartea) amaituko dira. **Okupazioa maiatzaren 19tik (aparkalekua libre egongo da 11:00etatik) ekainaren 1era bitartekoa izango da (aparkalekua libre 14:00etarako).**

**BIGARRENA:** Okupatu ahal izango den espazioa planoan irudikatuta erantsi zaizkio lankidetzaz hitzarmen honi (l. eranskina). AFADEk etxola eta atrakzioen banaketa zehatza aurkeztuko du (kokapen planoan).

AFADEk adierazi du esparruaren muga fisikoak eta perimetroa ezagutzen eta onartzen dituela, eta muga horien barruan sartu behar direla nahitaez feria osatzen dituen feria-atrakzio guzti-guztiak, horretarako erantsi den egoera-planoaren arabera. Plano hori Bergarako Udalak egin du, eta AFADE elkarteak bere gain hartu du oso-osorik. Udalbaimenik gabe aldatuz gero, benetan okupatutako azaleraren soberakina kobratuko da, udal-ordenantza fiskaletan ezarritakoaren arabera.

Aldi berean, AFADEk atrakzioak instalatzeko konpromisoa hartzen du, dagokion baimenean jasotako baldintza teknikoak betez eta Bergarako Udaleko teknikariek horretarako emandako jarraibideei jarraituz.

Lursailen planoan orientagarria da, eta udalak, AFADEk aurkeztutako atrakzioen kokapena zertxobait alda dezake, egoerak hala eskatzen duenean.

Ezarritako baldintzak betetzen ez badira, baimena errebotatuko da, eta fidantza proportzioan galduko da.

**HIRUGARRENA:** AFADEk kudeatuko du **postuen banaketa**, eta Udalak ezagutu ditzakeen interesdunak elkarte horretara jotzeko bideratuko ditu. AFADEk bermatuko du elkartekide ez diren profesionalak atrakzio edo etxola bat jartzeko duten eskubidea, baina AFADEra jo beharko dute eskaera kudea dezan.

Lanpostuak banatzerakoan, nolana ere, interesa duten ferialari guztien artean errespetatu egin beharko da berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa, eta ezin izango da diskriminaziorik egin elkarteko kide ez izateagatik; eta irizpide gisa, feriara barraka, etxola, atrakzio edo kategoria bereko instalazioekin joan izanaren antzintasuna hartuko da kontuan.

**LAUGARRENA:** Hitzarmen hau gauzatzeko udalaren baimena behar da, eta, beraz, AFADEk, gutxienez hilabete lehenago, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1) Ferian parte hartzen duten instalazio guztien **kokapenaren planoan**. Bertan, identifikatu egin beharko dira feria-esparruko larrialdietako ebakuazio-eremuak, kontuan hartuta espazio horiek libre egon behar dutela eta hori bermatzeko erantzukizuna adjudikazio-hartzaileari dagokiola.

2) Mugimendu-ferien eta etxolen zerranda, honako datu hauek barne:

- Feriaren edo etxolaren titularraren izen-abizenak.

- Feriaren edo etxolaren izena.

3) **1.000 euroko** behin betiko bermea. Bermea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan jasotako moduren batean edo batzuetan eman ahal izango da. Bermeak Udal Diruzaintzan ezarriko dira, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikulua araberan eman ahal izango dira. Bermea eskudirutan jartzea erabakiz gero, bermearen zenbatekoa kontu korrante honetan sartuko da: Kutxabank ES94 2095 5070 79 1061075569. Kontzeptuan espediente-zenbakia (2026LUSE0005) eta kontratuaren xedea aipatu beharko dira. Bermea itzuliko da, dagokion udal-teknikariak txostena egin ondoren, instalazioa desmuntatu eta 30 egun balioduneko epean.

4) FERIA eta ETXOLA bakoitzak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza ordaindu izanaren egiaztagiria:

Ferialari bakoitzak aseguru-poliza bat kontratatu beharko du erabiltzaileek edo hirugarrenek jasan ditzaketen kalteak estaltzeko. Alde horretatik, esleipenduna izango da, halaber, feria-esparruaren barruan aipatutako atrakzioetatik erator daitekeen istripu ororen erantzule solidarioa. Udalak, bere aldetik, ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, ez zuzenkorik ez subsidiariorik.

Etxola eta atrakzio guztiek pertsonako gutxienez 150.000 euroko estaldura izan beharko dute.

- Gutxienez atrakzioaren deskribapenari eta muntatzeko, mantentzeko, kontserbatzeko eta erabiltzeko jarraibideei buruzko segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazio teknikoa (memoria teknikoa). Ez da beharrezkoa izango horiek aurkeztea, baldin eta 2023tik aurrera udalari aurkeztu bazaizkio eta gerora aldatarik izan ez badute. Bertan honakoak agertu behar dira, gutxienez: atrakzioaren deskribapena, antzinatasuna, eta muntatzeko, onik zaintzeko eta erabiltzeko jarraibideak. Halaber, atrakzioaren azalera metro karratutan, eta instalatutako potentzia elektrikoari buruzko datuak, agiteriarako eta indarrerako den bereizita, eta argitzeko erabilitako lanparen eta ekipo zein motorren kopurua eta motak deskribatuta. Instalazioaren albiderekotasunaren faktorea ere zehaztu behar da.

- Atrakzioaren urteko berrikuspen-ziurtagiria, teknikari tituludun eskudunak edo ikuskapen-erakunde egiaztatuak egina.

- Urteko berrikuspenaren ziurtagiria, mantentze-eragiketarako UNE 23120 arauaren «Urteko Mantentze Programan» eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera egin direla egiaztatzen duena.

- Suteen aurka babesteko instalazioen urteko berrikuspenaren ziurtagiria, UNE 23120 arauaren «Urteko Mantentze Programan» eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera mantentze-lanak egin izana egiaztatzen duena. Azken urtean erositako itzalgailuen kasuan, erosteko-data eta su-itzalgailuaren zenbakia dituen faktura.

- Ferietako edo etxoletako langile edo titular guztien zigor-aurrekari sexualen ziurtagiria.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiria, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duena, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duena.

Era berean, feriak eta etxolak instalatu ondoren, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria, atrakzioaren muntaia bakoitzean eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskapen-erakunde egiaztatuak egina.
- Hornidura elektrikorako kontratuak eta, hala badagokio, etxola edo atrakzio bakoitza martxan jartzeko instalazio-ziurtagiria (krokadura elektrikoaren buletina), baita, beharrezkoa izanez gero, instalazio elektriko proiektuak ere, baimendutako teknikari batek sinatuta.

**BOSGARRENA:** Alderdiek honako baldintza ekonomiko hauek adostu dituzte:

- **Helduentzako eta haurrentzako atrakzioak: 2,80 euro** bidaiaria bakoitzeko eta **10 euro 5 bidaiako** bonua.
- "Haur Egunak" maiatzaren 25eko (astelehena), goiza eta maiatzaren 27 (asteazken) osoa izango dira; horietan, **1,5 euro** bidaiaria bakoitzeko.

Gainerako atrakzio ez-mugikorren gehieneko prezioak honako hauek izango dira:

- Tonbola: 2 txartel - euro 1; 5 txartel - 2 euro.
- Tiroa: 2 kortxo - 1,50 euro; 5 kortxo - 3 euro.
- Pilotak: 3 pilota - 2 euro.
- Uztaiak: 3ko tirada - 3 euro.
- Dardoak/sokak: 3 dardo - 3 euro.
- Tiroa: 2 tiro - 1,5 euro; 6 tiro - 5 euro.
- Ahateak: ahate 1 - euro 1; 6 ahate - 5 euro.
- Makinak: partida 1 - euro 1; 4 partida - 2 euro.
- Bingoa: kartoi 1 - 1,50 euro; 3 kartoi - 3 euro, 5 kartoi 5 euro.
- Txurro-denda: dozena bat - 5 euro.
- Billeteak: billete 1 - euro 1; 7 billete - 5 euro.

Mugigarria ez den beste etxola edo atrakzio motaren bat badago, prezioa adierazitakoaren arabera egokituko da.

Mugimenduko atrakzio bakoitzak gutxienez **240 tiket** eman beharko dizkio udalari doan. Maiatzaren 13a baino lehen entregatu beharko dira.

**SEIGARRENA:** Alderdiek honako baldintza tekniko hauek adostu dituzte:

- a) Feriaren itxiera-ordutegia honako hau izango da:
- a. Jaietako ostiraletatik astelehenera: gaueko 3:00ak arte. Jaietako asteartean, gaueko 01:00ak arte.
  - b. Jaieguna ez den gainerako egunetan:
    - i. Ostiral eta larunbatean: gaueko 01:00.
    - ii. Astegunetan: gaueko 11:00ak.

Ez da irekiko goizeko 11:30ak baino lehen.

Sirenak, musika edo jendea erakartzeko beste modu batzuk erabiltzen dituzten atrakzioetan, ezin izango dira era zaratatsuan erabili, eguerdian, 14:00etatik 16:30era, ezta jaietako ostiral eta larunbatean ere gaueko 01:30etik aurrera.

Gainerako egunetan ezin izango dira erabili:

- Ostiral eta larunbat gauetan (jaietakoak ez direnak), 22:30etik aurrera.
- Gainerako egunetan, gaueko 20:00etatik aurrera.

Udalean musikaren bolumenagatik edo ordutegiagatik keixuren bat jasotzen bada, musika kentzeko edo bolumena jaisteko errekerimendua egin ahal izango zaio, eta nahitaez bete beharreko agindua izango da.

Ahal den neurrian, instalazio osoan musika bera erabiliko da, eta gutxienez %80 euskarazkoa izango da.

Behar bereziak dituzten herriko eta inguruko haurrek ere feriaz gozatu ahal izan dezaten, Gautena Elkartearekin koordinatuta, jaietako igande eta astelehenean 17:00etatik 19:00etara ez da musika edo sirena zaratatsurik jarriko feria-esparru osoan. Gainera, ferietako arduradunek/langileek erabateko lehentasuna eman beharko diete ilaran premia bereziak dituzten haurrei feriarara sartzeko.

- b) Ferian jartzen diren kartel guztiek eta beste edozein informaziok gutxienez euskaraz egon beharko dute (eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, biak material berarekin eta euskarari lehentasuna emanez).

Bestalde, megafoniatik ahoz behin eta berriz errepikatzen diren esaldiak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira. Erabiltzaileekiko harremanetan ere euskara erabiliko da ahal den guztietan.

Musika duten atrakzioek gutxienez %80an euskarazko musika jarri beharko dute. Udaleko Euskara Zerbitzuak euskarazko musika-zerrenda hauek ipiniko ditu haien esku:

- *BARRAKETAN EUSKARAZ - Haurrak*
- *BARRAKETAN EUSKARAZ – Gazteak eta helduak*

Kartelak euskaraz prestatzeko edo megafoniatik errepikatzen diren esaldiak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura ([euskara@bergara.eus](mailto:euskara@bergara.eus)) edo UEMARA jo daiteke (Udallerri Euskaldunen Mankomunitatea: [komunikazioa@uema.eus](mailto:komunikazioa@uema.eus)), beti ere astebete aurretik.

- c) Esleipendunak bere gain hartzen du atrakzioen ordena eta funtzionamendu onaren erantzukizuna (Bergarako udalerrian instalatuta dauden bitartean), bai eta ezarritako baldintzak betetzearen erantzukizuna ere.
- d) Espresuki debekatuta dago feria-esparruan animalia biziak erakustea, saltzea eta horien zozketa egitea. Halaber, berariaz debekatuta dago azoka-esparruan piroteknia-gaiak saltzea.
- e) Atrakzioak edo etxolak fisikoki instalatzeko, ezingo da zorua zulatu. Zoladuraren gainean, zuhaitzetan, argiterian edo bestelako hiri-altzarietan eragin ditzaketen kalteak konpondu beharko dituzte; alegia, instalazioa egin aurretik zegoen egoera berean utzi beharko da. Hura ez bada betetzen, kaltetutako zatia lehengora ekartzeko, kaltea edozein izanda ere, gutxienez, 2 m<sup>2</sup>ko azalera konpondu beharko da, konpondu beharreko gune bakoitzeko.

- f) Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, atrakzioek baldintza hauek bete beharko dituzte:
- Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen segurtasun-, higiene- eta osasungarritasun-baldintzak.
  - Instalazio edo atrakzio bakoitzak erreklamazio-liburu bat izan beharko du.
  - Instalazioek argi eta garbi jaso beharko dute zer adin edota gutxieneko garaiera beharrezkoa den instalazioetara sartzeko. Informazio hori instalaziorako sarbidean eta leihatilan agertu beharko da. Instalazioaren titularrek baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea beharko dute.
  - Jendeak ikusteko moduan izan beharko dute produktu eta zerbitzuen prezioen zerranda.

- g) Lanpostuen titularrek elektrizitate-hornidura kontratatu beharko dute, eta debekatuta dago udal-saretik egitea. Behar den potentzia 10 Kw baino txikiagoa bada, dagokion buletina bete beharko da instalatzaile ofizial baten bidez; 10 Kw-koa edo handiagoa bada, buletina eta proiektu bat beharko dira, eta konexio guztiak instalatzaile ofizial horrek egin beharko ditu. Kudeaketa guztiak eta instalazio horien kostua AFAD-aren kontura izango dira.

Instalazio guztiak abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaren Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan ezarritako arauak beteko dituzte, eta instalazio bakoitzaren titularrak izango dira ez betetzeak eragin diezazkiekeen kalte-galeren erantzuleak. Ferialariek beren gain hartu beharko dituzte multzo elektrogenoak alokatzeagatik sor daitezkeen gastuak. Oro har, ezingo dira instalatu aipatutako dekretuan zehaztutakoa betetzen ez duten multzo elektrogeno osagarriak.

Indar elektrikoa enpresa hornitzailearekin lotzeko, ezinbestekoa izango da beharrezko dokumentazioa egiaztatzea.

Udal-hargunetik kontagailu-koadrora edo barrakaren banaketa-koadrora doan banako deribazioak airekoa edo lurpekoa izan behar du, eta lurzoruan ez da inola ere babesik gabeko kaberik onartuko.

50 kW-eko edo gehiagoko potentziarako energia sortzen duten taldeak erabiliz gero, instalazio-ziurtagiria (krokadura elektrikoaren buletina) eta proiektu elektrikoa beharko dira.

- h) FERIA-esparru osoak itxura ona eta txukuntasun orokorra izan beharko du, okupatutako espazio guztia egunero eta behar den guztietan garbi mantendu beharko da, eta esleipenduna izango da betetze horren arduraduna. Udalak uste badu klausula hori ez dela betetzen, hitzarmena betearazi eta/edo baliogabetu ahal izango du, eta dagokion zehapena ezarri.

- i) AFAD-eko ordezkaria arduratuko da atrakzio guztien titularrei arau hau betearazteaz.

Hala eta guztiz ere, titular zehatzen batek bere ohartarazpenei jaramonik egiten ez badie, adjudikazio-hartzaileak horren berri emango die udal langile arduradunei, horren arabera jokatu dezaten, hau da, titularrak arau-hausteaz ohartarazi dezaten, eta, jarrera horretan jarraitzen badu, atrakzioa ixteko eta utzarazteko agindu diezaioten.

- j) Atrakzio guztiak, araudiak hala eskatzen badu, su-itzalgailluak eduki beharko dituzte instalazio-aldi osoan, betiere berrikusita eta ikusteko moduko eta larrialdi-kasuetarako sarbide errazeko lekuetan jarrita.

- k) Beren ezaugarriengatik arrisku-, garaiera- edo abiadura-sentsazioa duten atrakzio guztiek nahitaez izan beharko dituzte segurtasun-uhalak, itxigailu zentralizatuak, arnesak edo erabiltzaileen segurtasuna bermatzen duen edozein elementu homologatu. Elementu horiek ezinbestekoak izango dira atrakzioak abiarazteko eta funtzionatzeko.
- l) Elikagaien salmenta: Elikagaiak saltzeko instalazio guztiek indarrean dauden xedapen tekniko-sanitarioak bete beharko dituzte. Elikadura-jarduera orok eskatzen du bertan lan egiten duten kide eta langile guztiek Elikagaien Manipulatzailerik Txartela izatea. Ildo horretan, Udalak edozein momentutan eska diezaiolke lanean dagoenari manipulatzailerik txarteka aurkezteko momentuan. Hortaz, eskuragarri izan beharko dira establezimendua irekita dagoen bitartean.

Instalazio horien garbitasun-egoera ahalik eta txukunena izango da. Mostradorean iturriko ura eduki beharko dute, baita estolderia-sarera hustubidea ere. Era berean, baliabide eta instalazio egokiak izango dituzte elikagaien kontserbazioa bermatzeko.

- m) Debeekatuta dago edozein motatako produktuak saltzeko makinak instalatzea udalaren berariazko baimenik gabe, baita putching ball, ostiko makinak edo antzeko elementuak ere. Era berean, ezin izango da ezarri adierazitakoez bestelako postu, etxola edo atrakziorik.
- n) Espresuki debeekatuta dago feria-esparruan ibilgailuak aparkatzea eta zirkulatzea. Salbuespen gisa, muntaketa- eta desmuntaketa-aldietan, eragiketa horietarako beharrezkoak diren ibilgailuak bakarrik sartu ahal izango dira.
- o) Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen arabera, berariaz debeekatuta dago 18 urtetik beherakoei saltzea, hornitzea, oparitzea, publizitatea... bai edari alkoholodunak, bai tabakoa, bai nikotina-banatzailerik (edo beste substantzia batzuk), bai bingo-kartoiak.
- p) Debeekatuta dago ingurumenean edo osasun publikoan inolako eraginik izatea, eta AFADE elkarteak kalte horiek prebenitzeko ardura hartu beharko du, bereziki honako gai hauek:
- 1.- Hondakin-uren kudeaketa.
  - 2.- Energia-eraginkortasuna eta -aurrezpena.
  - 3.- Hiri-hondakin solidoen kudeaketa.

AFADE elkarteak bermatuko du sortutako hondakinen gaikako bilketa behar bezala egiten dela, eta Bergarako Udalak beharrezko baliabideak jarriko ditu. Arriskutsuak diren hondakinak, baldin badaude, aplikatzeko den araudian xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Era berean, landare-olio erabilia sortzen duten jarduera guztiek kudeatzaile baimendu bat izan beharko dute, hura kentzeko eta kudeatzeko.

- q) Atrakzio eta etxoletako jendaurreko karteletan ez da hizkera edo irudi sexistarik erabiliko, eta emakumeak eta gizonak aipatuko dira. Atrakzioek ezingo dituzte erakutsi emakumeak objektu sexual huts gisa aurkezten dituzten irudiak.

Era berean, musika-programazioa duten instalazioek bermatu beharko dute abestiek ez dutela eduki matxistarik sustatzen, eta inola ere ez dutela emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen.

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak laguntza eskainiko du testuetan egin beharreko zuzenketak egiteko eta musika gainbegiratzeko.

Debekatuta dago jostailu beliko eta sexistak saltzea atrakzioak dauden esparruan.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, elkarteak konpromisoa hartzen du *Jai- eta aisialdi eremuetan indarkeria matxista prebenitzeko eta aurka jarduteko protokoloa* betetzeko. Horrek esan nahi du dokumentu horretan jasotzen diren prebentzio- eta jarduera-neurriak abian jarri behar direla. Ildo horretan, elkarteak protokoloaren dokumentua bidali beharko die ferialariei bai eta eranskailuak, kartelak edo bestelako informazio-materialak ere, atrakzio bakoitzean ikusteko moduko lekuetan jarri beharko direnak. Era berean, atrakzioak irekita dauden bitartean, protokoloaren arduradun bat edo batzuk izendatu beharko dira, eta pertsona horiek izango dira erasotua artatzeko arduradunak, behar izanez gero.

Horrela, eraso matxistaren bat detektatu ondoren, erasotua artatuko da udal-protokoloaren irizpideei jarraituz, eta erasotzailea feria-gune osotik kanporatuko da. Kasurik egingo ez balu, Udaltzaingora deituko du ferialariak agindua exekutatzeko. Beharrezkoa balitz, atrakzio edo postua itxi beharko du.

Halaber, protokoloa ezagutzeko Udalak formakuntza ireki bat antolatuko balu, Elkarteak gonbidapena luzatuko die ferialari guztiei.

Azkenik, erasotzailea atrakzioetakoren baten arduraduna bada, atrakzio hori berehala itxiko da.

- r) Ferialarien etxe mugikorrek edo karabanak guzti-guztiak, **Tellerian** jarri beharko dira, Udalak emandako baimen-txartela erakutsiz, eta debekatuta egongo da beste edozein tokitan jartzea. Hala, AFADEk honako informazio hau aurkeztu beharko du Tellerian kokatuko direnei buruz:
- Tellerian instalatuko diren identifikazio-datuak (izen-abizenak, NAN, ibilgailuen kopurua, matrikulak).
  - Datak (noiztik noiz arte).
- s) Debekatuta dago baimendutako espazioa zatitzea edo azpierreant ematea, eta esleipendunak ezin izango dio beste pertsona bati eskualdatu baimena, ezta aifortutako jarduera aldatu ere.

**ZAZPIGARRENA:** Ikuskapena, arau-haustek eta zehapenak.

Abenduaren 23ko 10/2015 Legearen IV. tituluaren arabera, Udaleko teknikari arduradunek edozein unetan egin ahal izango diete ikuskapena titularrei, eta edozein azoka automatikoki itxi ahal izango dute betebeharrak horietakoren bat betetzen ez dela detektatu bezain laster.

Udalak ez du erantzukizunik izango atrakzio eta etxoletan eragindako kalteen gainean, arrazoia edozein dela ere.

Baimena errebokatze prozedurari kalterik egin gabe, baimena indarrean dagoen bitartean egiten diren arau-haustek Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legean ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak izango dira:

- Emakidatuzaren betebeharrak betetzean izandako atzerapenak;

- Aplikazio orokorreko araudia eta, bereziki, udalaren ebazpenak ez betetzea, betiere arau-hasute larri edo oso larritzat jotzen ez bada.
- Bergarako Udalaren ikuskapena oztopatzea.
- Arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat jo ez diren hizkuntza- edo berdintasun- arloko betebeharrak ez betetzea.
- Ez betetzea, hizkuntza-paisaiari dagokionez (kartelak), etxola eta/edo atrakzioen zenbaki (tarte) honetan: 13-17.
- Larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ekintza edo ez-egite.
- Jardueraren ordutegiak ez betetzea ordu erdiz gehienez.
- Errespetu falta herritarrekiko tratuan edota begirune falta larria ez denean.

Arau-hauste arinak 150 euroko isunarekin zehatuko dira.

Arau-hauste **larriak** izango dira:

- Bi arau-hauste arin egitea.
  - Errespetu falta larria herritarrekiko tratuan, begirune falta larria edota osasungarritasunik eza instalazioetan.
  - Emakidadunaren jarduera, jabari publikoaren edo instalazioen balio-galera dakarrena.
  - Udalaren kontrol- eta ikuskapen-jarduerak ez onartzea edo ukatzea.
  - Ez betetzea, hizkuntza-paisaiari dagokionez (kartelak), etxola eta/edo atrakzioen zenbaki (tarte) honetan: 18-24.
  - Emandako jabari publikoaren erabilera anormala edo baimendutakoaz bestelako jarduera egitea.
  - Jardueraren ordutegiak ez betetzea ordu erdi baino gehiago.

Arau-hauste larriak 400 euroko isunarekin zehatuko dira.

Arau-hauste **oso larriak** izango dira:

- Bi arau-hauste larri errepikatzea.
  - Duten garrantziagatik alarma soziala sortzen duen edo interes publikoaren kontra egiten duen edozein jarduketa.
  - Jardueraren ordutegiak ez betetzea ordu eta erditik gorako epean.
  - Garbiketaren hondakinak, komunekoak eta harraskakoak estolderia-sarean botatzea.
  - Aitortu gabeko atrakzio edo etxolak instalatzea.
  - Hizkuntza-paisaiari dagokionez (kartelak), 25 etxola edo atrakzio baino gehiagotan ez betetzea.
  - Alkoholdun edariak, tabakoarekin zerikusia duten produktuak, nikotina-banagailuak (edo beste substantzia batzuk) edo animaliak saltzea, hornitzea, oparitzea, iragartzea edo eskaintzea.

- Segurtasun-baldintzak ez betetzea, hala nola larrialdietako irteerak, edukiera, ezarritako segurtasun-tarteak eta abar oztopatzea.

Arau-hauste larriak 600 euroko isunarekin zehatuko dira.

Klausula honetan agertzen diren isunek ez diote kalterik egingo ondasunetan edo hirugarren pertsonetan sortutako kalteak ordaindu edo itzultzeagatik balizko gastuari edo kostuari.

Falta arinagatiko zehapena ezartzeko, espediente sumarioa egingo da, eta bertan alderdi arau-hausleari entzun beharko zaio. Falta astun edo oso astunengatiko arau-hausteak Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

**ZORTZIGARRENA:** Izaera, araubide juridikoa eta aplikatu beharreko araudia.

Hitzarmen hau eta espazio publikoa erabiltzeko baimena honako arau hauen arabera arautuko dira:

- Hitzarmen hau.
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, eta 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena.
- 10/2015 Dekretua, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, eta 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. Halaber, 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Poliziaren Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- Aplikatzekoak diren gainerako administrazio-arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratutik eratorritako auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende daudela ulertuko da; hala ere, alderdiek erabaki dezakete beren auziak arbitrajearen mende jartzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Eta horrela jasota gera dadin, bi aldeek agiri honetako edukiarekin ados egonik, kontratu elektronikoki sinatzen dute, sinatutzat jota azken sinadura elektronikoen datan.



IDAZKARIA  
Xabin Juaristi Arrieta

ALKATEA  
Gorka Artola Alberdi

EUSKADIKO FERIALARI AUTONOMOEN  
ELKARGOA - ASOCIACIÓN DE  
FERIANTES AUTÓNOMOS DE EUSKADI  
Euxebio Antonio Alves Bernardo



En Bergara, a la fecha de la firma electrónica.

De una parte, Don GORKA ARTOLA ALBERDI, Alcalde del Ayuntamiento de Bergara, en representación del Ayuntamiento, con la asistencia de Xabin Juaristi Arrieta, quien a su vez ejercerá esta acción.

Por otro lado, D. Euxebio Antonio Alves Bernardo, mayor de edad, con D.N.I., nº 60179956-L, en nombre y representación de ASOCIACION FERIANTES AUTONOMOS DE EUSKADI (NIF: G20153011), con el siguiente domicilio a efectos de notificaciones: Gazteluondo Kalea, 5, 2º Planta- 10, Recalde, 48002 Bilbao, Bizkaia ([bilbao@afadeeuskadi.com](mailto:bilbao@afadeeuskadi.com)).

Ambas partes se reconocen la capacidad legal necesaria al objeto de firmar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, en base a los siguientes

### ANTECEDENTES

ASOCIACION FERIANTES AUTONOMOS DE EUSKADI (NIF: G20153011), en adelante, AFADE, se ha dirigido al Ayuntamiento Bergara solicitando, como en años anteriores, la autorización de ocupación de suelo público con instalaciones de ferias, atracciones y puestos durante las fiestas de Pascua de Pentecostés de 2026.

La normativa reguladora de los bienes de las entidades locales exige que las autorizaciones de uso de los bienes de dominio público se otorguen en régimen de concurrencia, esto es, mediante convocatoria pública, cuando, como es el caso, se trata de un espacio limitado.

En cualquier caso, el Ayuntamiento considera innecesario proceder a realizar convocatoria pública ninguna respecto al espacio objeto del presente convenio, toda vez que la realidad ha demostrado que en las convocatorias promovidas por el Ayuntamiento ha participado únicamente AFADE y que la gran mayoría de las/os profesionales susceptibles de solicitar y obtener autorización pertenecen a dicha asociación o solicitan su intermediación.

No obstante, tanto dicha normativa como la que asegura la libre competencia en las actividades económicas impiden restringir el uso del espacio cedido en virtud de la pertenencia, o no, a AFADE. De ahí que el convenio garantice expresamente el derecho de las/os profesionales no asociados/as a optar a la colocación de una atracción o caseta, si bien deberán dirigirse a AFADE para que gestione su solicitud.

Con el fin de coordinar y acordar las condiciones anuales para la colocación y gestión de dichas ferias en las fechas y suelo indicado, las partes suscriben el presente documento, basado en las siguientes



## CLÁUSULAS

**PRIMERO:** Es objeto del presente convenio acordar y regular las condiciones para la ocupación de suelo público mediante la instalación de atracciones de la feria en el parking público sito junto al cementerio de Bergara, en la calle Matxiategi. Las fiestas de 2026 darán comienzo el viernes 22 de mayo y terminarán el martes día 26 de mayo. La ocupación será del **19 de mayo (el aparcamiento estará libre desde las 11:00) al 1 de junio (el aparcamiento deberá estar despejado para las 14:00).**

**SEGUNDO:** Se adjunta al presente convenio de colaboración el espacio que podrá se ocupado (Anexo I). AFADE deberá proponer la distribución exacta de las casetas y atracciones (Plano de la ubicación).

